


II.- LEZOK JASANDAKO KANPO ERASOKETAK

Aintzinakoak dira Lapurdiko itsasertzetatik lapurtzera zetozen wikingoekin edukitako borrokaldiak edota Akitaniako lurraldeetatik etortzen ziren erdi gerlari erdi lapurrekin izandakoak.

Gertakizun hauek ikusirik, Alfonso I. erregeak flota kapitain nagusia zen Fortunato Villaviciosaren semeak Pasaiako badia zaintzera etorerazi zituen. Hauek, Pasai Donibanen eta Lezon finkaturik, laister lotu ziren Arizabalo eta Pildain sendi ospetsuekin.

Euskal Herria herri boteretsuen artean kokatua egona da beti eta da go eta Auñamendiak zeharkatzen dituzten mendateak beti izan dira herri mugimenduen eta kanpoko erasoen igaroleku. Azkeneko mende hauetan Espainia eta Frantziaren artean egoteak oso arazo eta istilu gorriak ekarri dizkigu. Honela 1.476an frantsesek Lezo zeharo hondaturik laga zuten. Gauza bera gertatuko zen urte batzu beranduago Louis XII erregearen den boretan.

1.521an, frantsesek Hondarribia harturik, hango alkatea eta kapitain nagusia zen Joan Perez Azkue, bere alferez Antso Alkitza eta zazpirehun inguru hondarribitar Lezon babestu ziren, udala hemen berrantolatuz. Hurrengo hiru urtetan, hondarribitarrek eta hauekin batera lezoarrek, erasoaldi franko eratu zuten frantsesen aurka hiria berreskuratzeko asmoz. 1.522an Lezotik abiatu ziren hondarribitarrak Perez Azkueren agindupean gipuzkoar bataloiekin batera, San Martzialeko gatazkan parte hartzeko. San Martzialen lortutako garaipenaren ondoren Irun askatu zuten. Azkenean, 1.525 urtean, Iñigo Fernandez Belasko kondestablearen soldaduek Hondarribia askatu zutenean, hondarribitarrek udala berre-raiki zuten beren hirian.




Batzutan frantsesak, bestetan itsaslapurrak,.. gudate bat bukatu orduko beste bat pizten zen berehala. Honela, Flandrian matxinada bat piztu berria zela ta, eta Carlos I.a hara zihoalarik Lezon egin zuen atsedenalditxo bat bertako agintari-

ak agurtu nahian eta bai bere lagunmina zuen Joan Martinez, Lezoko batxillerra eta Lope Martinez de Isasti historigilearen osaba.

Mende bat beranduago, 1.638ko uztailaren lehenengo egunetan Condé Printze Mariskalaren tropek herria hartu zuten, bainan abuztuaren erdi aldean, etsaia oso hurbil bait zegoen, erabateko harrapaketa baten ondoren, Lezo utzi beharrean aurkitu ziren.

XVIII. mendean, frantses eta ingeles tropen ibilaldiek kalte eta hondamendi gehiago ekarri zuten. Karlistadetan, nahiz eta bertan gatazka haundirik ez gertatu, galerak eta kalteak berriro gaineratu ziren. Udaletxea zeharo birrinduta gelditu zen eta zenbait propietate erreki-satuak izan ziren, beren nagusiak karlisten aldekoak izanagatik.

1.936ko gudatean, azkenik, espainiar tropa nazionalak Oiartzun eta Lezon zehar sartu ziren Donostia bidean. Eta berriro sua eta hondamendia berpiztu ziren. Erreketeek Errikoetxea baserriari su eman zioten eta bizilagun askok bere baitan sufritu zuen soldadu nazionalen indarkeria. Oraindik ere Gaintxurizketa-ko zenbait tokitan Perez defentsa lerro-ko ametrailadora bunkerrak eta noizbehin ka bonbek lurtean egindako zuloak ikus daitezke.



K. Etxezurieta

"Lezo herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa" idazlane-tik hartua